



DABID ANAUT ▶ NAZIO GARAPENERAKO BILTZARREKO KIDEA

«Elkarrekin eta nazio ikuspegitik aritzea da gakoa»

LEITZA ▶ Nazio Plana izanen da bihar aztergai Zarautzen, Nazio Eztatidagunean

PLANA ▶ Leitzarrarentzat nazioa eraikitzeko lehentasunezko egitasmoen bilduma da ▶ 7



Euskararen berreskurapen osoa arloko arduraduna da Dabid Anaut leitzarra. J. ASTIBIA



M. SAN SEBASTIAN

Saralegi, Lau t'erdikoan debutatzeko prest

AMEZKETA ▶ Estreinakoz jokatuko du etzi Lau t'erdiko Txapelketa Nagusian, Eugiren aurka; «maila ona eman nahi dut», dio ▶ 5

IBARRA ▶

Erromeria eta jaialdia, Kultur Astea amaitzeko

Gaur, musika tresnen erakusketa ▶ 6

TOLOSA ▶

«Leidorren hutsuneari aurre eginez», udazkenerako kultur eskaintza zabala aurkeztu dute

Kultur Etxea, Aranburu Jauregia eta Fronton kafetegia dira hiru gunek; zezen-plazak ere hartuko ditu kontzertuak ▶ 2

ALEGIA ▶

AHTren aurka bilera egiteagatik, deklaratzera

«Jarrera errepresiboa» salatu du Elkarlanak ▶ 5

KULTURA ▶

Kultur eskaintza oparoa udazkenerako, «Leidorren hutsuneari aurre eginez»

Kultur Etxea, Aranburu Jauregia eta Fronton kafetegia izango dira hiru gunek; zezen-plazak ere kontzertuak hartuko ditu estreinakoz datorren asteburuan

NOELIA LATABURU

Heldu berri den udazken honetarako kultur ekitaldien programazioa aurkeztu zuten, atzo goizean, udal ordezkariak. Musika emanaldiek eta antzezlanek osatzen dute, gehienbat, programazio hori, eta hiru gunek nagusietan garatuko dira: Fronton kafetegian, Kultur Etxean eta Aranburu Jauregian, hain zuzen ere. Azken hau lehenengo aldiz erabiliko da kultur ekintzetarako, «inguru egokia delako poesia emaldien eta piano kontzertuen tankera-ko ekimenak hartzeko».

Leidorren berritze lanetako aipu berezia egin zuten aurkezpenean, izan ere, «orain artean hemen biltzen zen herriko kultur mugimendurik handiena». Dena den, eta hau martxan jarri bitartean, «Tolosa ez da geldirik egongo, ekitaldiei dagokienez programa duin batekin, eta, beraz, lortuko dugu Leidorren hutsunea gainditzea».

Azaldutako zerrondarekin batera, batik bat bi ikuskizunek hartuko dute garrantzia hil honetan. Abesbatzen Lehiaketa —aurtengoan Usabal kiroldegian gauzatuko dena— eta Txontxongiloak. «Hauek guztiak normaltasun handienarekin aurrera ateratzen saiatuko gara». Ezin ahanzi, halaber, astero-astero Leidorren ezinbestekoa zen hitzordua, zineklubarena, alegia. Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak jakinarazi zuenez, «ekimen honek aurrera jarraitu du, eta Leidor



Andoni Iturzaeta eta Jokin Ansorena, atzo goizean, programazioaren aurkezpena egiten. NOELIA LATABURU

ordez beste areto bat aukeratu da». Gainera, «Udalaren babes osoa jasoko dute antolatzailak, filmak lortuz eta behar duten laguntza luzatuz».

Laugarren gunek batekin ere erroka berri bati ekin nahi izan dio Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak. Zezen-plaza izango da hau, non datorren larunbatean, hilaren 15ean, Ken 7 eta Muchachito Bombo Infierno taldeek emanaldia eskainiko duten, 22:00etan. Kontzertu hauetarako sarrerak dagoeneko salgai daude, Servikutxa, www.kutxa.net eta Telekutxaren bitartez, 12 eurotan. HITZAK ere sarrerak zozketatuko ditu harpidedunen artean. Informatu eta parte hartu!

KULTUR PROGRAMAZIOA ▶

Udalak udazkenerako ekitaldi nagusien aurkezpena egin du, oraindik batzuk zehaztu gabe badaude ere.

KULTUR ETXEAN

Urriak 21, ostirala. *Larru haizetara* antzezlan.

Azaroak 11, ostirala. Javi Muguruza kantautorea.

Abenduak 16, ostirala. Agerre antzerkia: *Chicas bonitas, alegres maizales antzezlarekin.*

FRONTON KAFETEGIAN

Bihar. Jeff Spinoza eta Francisco Simon blues bikotea.

Urriak 21, ostirala. Jean Marie Ecay quarter, jazz laukotea.

Azaroak 4, ostirala. Tea, blues taldea.

ARANBURU JAUREGIAN

Azaroak 4, ostirala. Josi Labajos-Andoni Salamera, poesia errezitaldia.

Azaroak 5, larunbata. Karlos Jimenez *12 geltoki* piano kontzertua.

ZEZEN-PLAZAN

Urriak 15, larunbata.

Muchachito Bombo Infierno eta Ken 7 taldeen kontzertuak.

GIZARTEA ▶

Bilboko hilketa salatzeo konzentrazioa

Tolosaldeko Emakumeon Mundu Martxako plataformak konzentrazioarako deialdia luzatu du, gaur, 20:00etan, Tolosako Trianguloan. Bilbon iragan asteartean 68 urte zituen ama bat erahil zuten bere semeak, eta hau da, hain zuzen ere, salaketaren arrazoia.

DANTZA ▶

Udaberri dantza taldearen bilera, astelehenean

Udaberri dantza taldeak bere 50. urteurrena ospatuko du aurtengoan. Hori dela eta, datorren astelehenean, hilaren 10a, bilera egingo du bere lokalean, 20:30ean, prestaketa lanak egiteko.

MUSIKA ▶

Kontzertuak, gaur eta bihar, Bonberenean

Lau kontzertu izango dira asteburu honetan Bonberenean. Gaur, 22:30etik aurrera, Kerobia eta Sei urte ariko dira. Bihar, berriz, Zura eta Amodio taldeen emanaldia entzun ahal izango da, ordu berean.

KULTURA ▶

'Jarri sasoian korrika' salgai udaletxean

Jarri sasoian korrika liburua udaletxean dago salgai, 8 euroren truke, eta eskaera egiteko, telefono zenbaki honetara deitu besterik ez dago, 943 69 74 53 (Euskara Zerbitzua).

hitza **txokoa** ^{lagunen}

10 sarreren zozketa

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta, KEN ZAZPI eta MUCHACHITO BOMBO INFIERNO taldeen kontzertua, Tolosako zezen-plazan, hilaren 15ean.

▶ Deitu eta har ezazu parte zozketan, 2 sarrera irabaz ditzakezu.

943 65 56 95 (11:00-13:00 / 16:00-18:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



EUSKARA ▶

Edozein lanetan euskaraz idazteko gaitasuna bermatzeko

300 orduko ikasketa egitaraua prestatu du Idazle Eskolak bi urtetan banatuta; Bergaran izango dira klaseak, larunbatetan

IRATXE ETXEBESTE

Literatur sormenaren eta oraindik ohikoak ez diren alorretan euskara erabilgarri egiteko baliabideak eskaintzeko 3. ikastaroa jarri du abian Idazle Eskolak. Bi arlo jorratuko dituzte: idazketa literarioa eta profesionala. «Ikastaro honen bitartez idazle literarioak erabili ohi dituen baliabide erretoriko eta estilistikoak ezagutarazteko tresnak jartzen dira eskura, eta, era berean, idazle literarioei beste zenbait alorretan egiten ari diren lanen berri ematen zaie».

Bestalde, Idazle Eskolako arduradunen hitzetan, administrazioan, irakaskuntzan edo laneko arlo ezberdinetan dihardutenei euskarak dituen baliabide espezifikoak irakasten zaizkie eguneroko eginbeharreri aurre egiteko. «Irakaskuntza prezentsialaren eta birtualaren bateratzeari esker, bi urtetan banatutako 300 orduko ikasketa egitaraua prestatu du Eskolak. Idazle, irakasle eta euskararen adituak diren tutore talde batek ikasleak eginiko lan praktikak ebaluatuko dituzte». Bekak lortzeko aukera eskaintzen du Eskolak. Klaseak urrian bertan hasten dira, eta matrikulatzeko aukera oraindik zabalik da. Ikasleak duen euskara mailari egokitu-tako klaseak eskaintzen ditu.

«Pasa den urteetako eskaerei jarraikiz, bi idazketa mota landuko dira aurtengoan eskolatan: idazketa literarioa, bate-tik, eta idazketa profesionala, bestetik —lan arloko zein ikas-keta arloko idazketa, alegia, administrazioa barne—. 2003an jarri zen martxan Idazle Eskola Euskal Idazleen Elkartearen, UNED-Bergararen, Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioaren eta IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Era-

kundearen egitasmoari esker. Zera da euskararekin harremana duten erakunde desberdinen egitasmoaren bidez sortutako eskolaren helburua: partaideak trebatzea, euskaraz ongi idaztea, eta ongi ulertzea arlo ezberdinak euskaldunduz. Horregatik, aintzat hartzen den helburuetako bat gramatika eta hizkuntza baliabideetan sakontzea eta euskal hitzunez gaur egun eskatzen dituzten idazketa, mintzaera, esamolde... beharrei erantzun egokia ematea da.

«Euskarak berezkoak dituen baliabideak gizarteratu eta ezagutarazi nahi ditu Idazle Eskolak, eta euskal irakurlearen benetako egoera kontuan hartuko duen idazketa bultzatzea lortu. Zuzentasun gramatikalaz gain, hartzaileren ulergarritasun mailaz ere arduratuko da». Idazle Eskolako partaide diren ikasleek osatzen dute Eskola: «idazleek Eskola garatu behar dute beraien lanak, dokumentuak eta idatziak ezagutaraziz eta euskaldun guztion eskura utziz». Horretarako, batzuetan dauden ohiturak ezagutarazi beharko dira, eta, besteetan, aurkitzen ez direnak sortu. Eskolak paperezkoak eta birtualak diren euskarri ezberdinak ditu lan horiek plazaratzeko.

Berezko metodologia

Ikastaroak berezko metodologia bat eskaintzen du: urrian hasi eta maiatzean amaitzen den ikasketa prezentsialaren eta birtualaren bitartez, bi urtetan banatutako 300 orduko ikasketa egitaraua prestatu dute arduradunek. «Modulu birtualak, ikasleak euskaraz edozein testu-mota idazteko gaitasuna izatea lortu nahi da». Horretarako, ikasketa praktikoa izango dira, eta praktika horien arabera, ikaslearen lana

ebaluazio jarraitu batez neur-tuko da.

«Hasieratik ikaslearen gaitasunetik abiarazi eta helburu duten idazketa-motara joko da, eta ikasleak euskal idazle eta aditu ezberdinen tutoretzaz baliatu ahal izango dira horretarako: Andu Lertxundi, Laura Mintegi, Unai Elorriaga, Fernando Morillo, Tere Irastorza, Juan Mari Elexpuru, Jerardo Elortza, Joseba Lozano...».

Bi urtetako iraupena duen ikastaroa honela banatzen da: lehenengo ikasturtean, 150 ordu (120 prezentsialak eta 30 telematikokoak) eta bigarrean, 150 ordu (100 prezentsialak eta 50 telematikokoak). Klaseak larunbatetan dira, 09:00etatik 13:30era, Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartuan. Ikastetxeak bi eratako diplomak eskaintzen ditu: graduondokoa (Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartutza tutelatua) eta diploma (EIE, Eusko Ikaskuntza eta UNEDek eskainia). Diploma Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak homologatua da.

Informazio gehiago nahi dutenek www.idazleak.org eta www.asmoz.org/ieskola webguneetara jo dezakete, edota 943 27 69 99 eta 943 21 23 69 telefonoetara deitu. Idazle Eskolan parte hartzen duten ikasleek lanak Luma aldizkarian ikus daitezke argitaratuta, eta urtariletik aurrera Gara egunkariko Mugalari literatur gehigarrian, Beterriko Liburuan eta bere orriak eskaini dituzten beste hainbat aldizkarian ikusi ahal izango dira.

Programaz kanpo, Andu Lertxundiren obran murgiltzeko aukera ere izango da ikasturte honetan, bere lanak, irakurketak eta hausnarketak lantzeko aukera izanik. Eskolako ikasleek gain, egilearen lanean sartzeko interesa duen edonork eman dezake izena.

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

- 1 Ipuin harrigarriak 1 **Kastillopranko Biribil-biribilak** Ipuin harrigarriak 2 **Dar-dar Ondo eginaren ordaina** Ipuin harrigarriak 3 **Gatza ala erregea Biziak ezagutzeko hil** Ipuin harrigarriak 4 **Zapatari asmatzailea Zerraldoan bizirik** Ipuin harrigarriak 5 **Ikazkina eta heriotza Besterik ez bezalako kapela** Ipuin harrigarriak 6 **Estudiante Tonto Ezkonberriak** Ipuin harrigarriak 7 **Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki Zeruko berriak** Ipuin harrigarriak 8 **Pepetxu eta Popatxu Kardulaza salatari**

Urriaren 8tik aurrera ASTEBURUETAN

berria

+ 3 €

Laguntzaileak

Eusko Jaurlaritzaren

berria

Elola ALTZARIAK

bede

- Etxeko altzariak. Tel.: 943 65 29 01
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Lizardi poeta, 2
- Armairu enpotratuak neurria. **TOLOSA**

Elola ALTZARIAK

Elola ALTZARIAK

Kontsu Taberna
OREXA
MENU BEREZIA
943 68 21 54

ELOLA
ALTZARIAK
bede

- Etxeko altzariak. Tel.: 943 65 29 01
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Lizardi poeta, 2
- Armairu enpotratuak neurria. **TOLOSA**

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gazteriaren indarrak

Gazteria iraultzailea da izatez. Berak pairatzen ditu sistema kapitalista honen ondoriozko latzenak: langabezia, etxebizitzaren arazoak, lan munduko egonkortasunik eza, lan baldintza kaxkarrenak... Klase agintariak arazoekin estutu nahi du gazteria, bururik altxa ez dezan, beraien interesak hondatuko lituzkeen ideia txorrorik buruan sar ez diezazkieten. Baina gazteria ez dago ados eman zaionarekin eta zerbait berria nahi du. Gazteen bizitasuna, helburuak lortzeko nahia, borrokarako grina ezin da gizarteko beste edozein

sektorekin alderatu. Gazteak bidali dira gudetara, gazteek egin dituzte iraultzak. Gazteak dira, nolabait esateko, gizartea baldintzatzen dutenak, orain ikasle eta gero langile izango direnak, gazteria da herri honen etorkizuna. Eta honegatik da, baita ere, hain sektore kezagarria eta arriskutsua klase agintariarentzat.

Zapalketa horri aurre egiteko gazteria antolatu egiten da, borrokatu egiten du. Horixe da Gaztetxea, gaur egun Euskal Herrian ezagutzen den gazte antolaketarik ederrena eta klase agintari eskuindarraren mehatsupean dagoena. Antolaketa horretan datza bere indarrak. Kapitalismoak ez dio honi usain onik hartzen eta ho-

rregatik eman dira etxe hauen itxierak Euskal Herri osoan. Gazte eta langile antolaketa oro gorroto du burgesiak, eta biolentziarekin (hainbeste gorroto duen biolentziarekin) zatitu dituzte asanbladen egoitzak.

Gaztetxea gai da kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak... antolatzeko gazteei beren aisialdirako alternatibak ipiniz. Burgesiaren kulturak ez du sarbiderik lau horma hauen artean. Autogestio komunala erabiliz gutxiak lortuko lituzkeen emaitzak lortzen dituzte.

1905eko Errusiako Iraultzan, langileriak eta gazteriak sobiet izeneko herri asanblada modukoak antolatu zituzten iraultzaren beharrak asetzeko. Errusiako herri bakoitzean

sortu ziren organu iraultzaile hauek, duela gutxi Bolivian bezala, eta euren arteko harremana eta kolaborazioa oinarrikoa izan zen 1917ko Iraultza aurrera ateratzeko.

Ezin daiteke esan gaztetxeak sobieten berdinak direla, ez baituzte funtzio berberak burutzen, baina krisi sozial baten kasuan organuak herri bakoitzean jada eraturik edukiko genituzke harreman estuan denak! Funtsezkoak izan daitezke!

Hori gutxi balitz, esan beharra dago gaztetxeek demokraziaren berri lehenago izan dutela parlamentuek baino, duten sistema gazteriaren erabaki zuzenetan oinarritzen baita, ez bere hautesleen erabakia

errespetatzen ez duten parlamentari txepeletan.

Gaztetxea iseka bat da burgesiaren jabetza pribatu santuarentzat. Erresistentzia bat da herrien barruan, kapitalismoak herrietako beste erakundeekin egin dezakeen bezala kontrola ezin dezakeena. Gaztetxea gazteriaren organu naturala da, demokratikoa eta ispiritua iraultzailez bete! Gaztetxea da gazteek arnastu nahi duten kultura! Gazteriak eta gaztetxeek paper handia betetzen eta beteko dute, langileriarekin aliaturik, eta ez litzateke ez kaxkara izango gaztetxea sobieten pare ipiniko litzatekeen eguna!

URTZI REGUERO ETA
BESTE LAGUN BAT ▶ ZUZURKIL

HERNIALDE ▶ KULTURA

Paisaiak eta bodegoiak ikusgai

Francisca Barrerok bere margolanak erakusten ditu Hernialdeko Ostatuan

IMANOL GARCIA

Francisca Barrero donostiarra 26 koadro erakusten ditu Hernialdeko Ostatuan. Olio teknikarekin egindakoak dira gehienak, eta zenbait pastel teknikarekin ere ipini ditu. Azaroaren erdira arte egongo da ikusgai erakusketa. Paisaiak eta bodegoiak dira nagusi, baina margolariak dienez, «ez naiz gai batzuetara mugatzen, denetarik margotzen dut».

Barrero Gipuzkoako Elkarte Artistikoaren kide da, eta bertan burutzen ditu bere lanak. Orain 73 urte ditu, eta betida-

nik margotzea gustatu izan bazait ere, hamar urte daramatza dedikazio handiagoa emanez zaletasunari. «Margotzeak betetzen nauden zerbait da, asko gustatzen zaidana. Denbora erraz joaten da», dio margolariak.

Astebete darama soilik erakusketak, eta dagoeneko bi koadro saldu dira eta beste bat erreserbatuta dago. «Ez ditut salneurri altuak jartzen, baina hala ere ez da erraza izaten saltzea. Gustura nago jendeak koadroak ikusteko aukera duela eta zerbait saltzen bada, are gusturago», dio Barrerok.



Abilturko eliza eta Abaltzisketa islatu ditu bere margoetan Francisca Barrerok. HITZA



Bodegoiak eta bestelako gaiak ikusgai daude asteotan Hernialdeko Ostatuan. HITZA

GOIERRIKO HITZAren 1. URTEURREN FESTA

URRIAREN 8AN BEASAINGO PLAZAN



16:30ean
TXILIBUTXOfen
Tailerra

19:00etan
AURTZAKA DANTZA TALDEA
eta
ZUHAITZAREN SOINUA
Txalaparta

BERTSOLARIAK

22:00etan
HARTU ARTE
Rock taldea

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik aurrera HITZako MATERIAL SALMENTA

EKAITZ SARALEGI ▶ PILOTARIA

«Aukera honekin galtzeko ezer ez dut eta irabazteko, aldiz, asko»

Pilotari amezketarra Lau t´erdiko Txapelketa Nagusiko aurpegi berria da; igandeko estreinaldian maila ona ematea espero du eta Eugi garaitzea du amets



M. SAN SEBASTIAN

MARTA SAN SEBASTIAN

«Lehenengo mailan pilota ho-beak edukitzen dituzte, eta hori aprobeatxatuko dut», mintzatu da Ekaitz Saralegi ilusioz eta gogotsu. Izan ere, profesionalen 5 urte daramatza eta aurturten Lehen Mailako Lau t´erdiko Txapelketan txoko bat egitea lortu du. Aukeraketarekin inor damutuko ez dela erakutsi nahi du amezketarrak.

Ustekabeen hartu al zintuen Lehen Mailako Txapelketan parte hartzeko berriak?
Ez duzu pentsatzen onenekin jokatu duzula, eta izugarriko ilusioa egin zidan. Tolosan entrenatzen ari nintzela nire arduradunak esan zidan gogor entrenatzen hastea komeni zitzaidala, agian aurturten Lau t´erdiko Txapelketan parte hartzeko aukera izango nuela eta. Nik hori entzun eta berehala hasi nintzen entrenatzen. Ondoren, Retegik berak esan zidan tokia nuela txapelketan.

Zergatik uste duzu aurturten iritsi zaizula aukera hau?

Udan izan diren partidetan maila ona eman dut eta, batik bat, horregatik izan dela uste dut. 25 partidetatik 20 irabazi ditut; nik espero baina marka hobea lortu dut. Pardu asko jokatzeko tokatu zait, eta gainera irabazi. Hori ez da askotan gertatzen.

Igandera begira, Eugi garaitzea espero al duzu?
Banekien lehenengo aurkaria gogorra izango zela eta horretarako prestatuta nengoen. Eugi tokatu da eta jokatzeko besterik ez da geratzen eta, ahal bada, egurra eman!

Hala ere, Eugi izena badu, baina azkenaldian ez du garaipe asko izan...
Bai, hori hala da, baina Eugi pilotari handia da. Badakit oso ongi prestatuta joango dela Bergarara, zalantzarik ez dut. Ni lasai jokatzeko saiatuko naiz, ez dut ezer galtzeko, eta irabazteko, aldiz, asko.

Zein da zure helburua txapelketan?
Lehenengo helburua igandean ondo jokatzeko da. Txapelketari

begira, ikusiko dugu zer gertatzen den.

Gogor entrenatzen ari zara?
Astearte eta ostegun goizetan Tolosan entrenatzen dut. Afizionatuek ere han entrenatzen dute, eta gu ere joaten gara eskualdekoak garelako. Beste batzuetan mendian bueltatxoak egiten ditut. Fisikoki ondo aurkitzen naiz, eskuetatik ere ondo nabil, eta espero dut orain ez izorratzea.

Nor ikusten duzu txapelketan aurturten faborito?
Lau t´erdiko Txapelketan Barriola eta Aimar Olaizola ibiltzen dira punta-puntan. Aurturten Abelek jokatu egin duenez, Olaizolak irabazteko aukera asko ditu.

Etxekoak eta lagunak pozik izango dituzu, ezta?
Oso pozik gaude denak. Lagunek adarra ere jotzen didate, «hik zer egin behar duk Eugiren aurka!» eta modukoak esanez. Baina guztiak zoriondu naute, eta gustura daude. Ea poz handia ematen didan igandean.

ALEGIA ▶

AHTren aurka bilera egiteagatik deklaratzera

Elkarlaneko 24 lagun salatu zituzten, Patxi Egilaz alegiarra euren artean

M.S.S.

Ekainaren 9an AHT Gelditu! Elkarlaneko 32 kidek Eusko Trenbide Sarearen bulegoetan bilera paketsua egin zuten. Ondoren, ETS-k, ekimen horren kontra, 24 lagun aurka salaketa gogorra ipini zuen, horietako bat Patxi Egilaz alegiarra.

«Desorden publikoa, koakzioa eta okupazioa» leporatzen diete. Atzo deklaratu zuen Tolosako Auzitegiaren Patxi Egilazek. Euskaraz deklaratzeko eskatu zuen eta orduan itzultzailek ez zegoenez, gaztelaniaz deklaratu egin behar izan zuen.

AHT Gelditu! Elkarlaneko ETS-k mantentzen ari den «jarrera errepresiboa» salatu du, eta euren helburu bakarra ekintza baketsu bat egitea zela argitu dute. Azkenik, Elkarlanek hilaren 13an hasi eta 21a bitarte AHTren aurka egingo diren ekintzetan eta 22an Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko deialdia egin du.

Asteasun lehen partida

M.S.S. ▶ Aurtengo Lau t´erdiko Lehenengo Mailako Txapelketa Asteasun jarriko da martxan bihar iluntzeko partidarekin. Bertan, 22:30ean, Patxi Ruiz Asegarceko pilotari lizarrarrak Aspeko Del Reyren aurka jokatuko du gaueko lehen partida. Ondoren, Unanuek eta Otxandorenak osatutako bikoteak Esainen eta Zezarraren aurka jokatuko dute bigarren partida. Ikuskizunerako sarrekerak salgai daude dagoneko Asteasuko udaletxean, eta bihar frontoian bertan.

Partida hau izango da asteburu honetan eta hurrengoan jokatu diren final-hamaseirenetako lehen partida. Zortzi garailek elkarren artean jokatu dituzte final-zortzirenak eta, ondoren, final-laurdenak. Azkenik, eta eragozpenik ezean, abenduaren 11n jokatu dute final handia. ◀

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

Urr 7 ost

www.sala31.com
LEKUNBERRI

BERRI TXARRAK

Irekiera 0:00etan
Aurretik 9 €
Lehiatilan 12 €

GUTUN@K ▶

Gutunak

Ez dauzkagu guk komunikatze bide ugari etxe hauetan. Espetxe politikaren bergizartarretzea dela dioten arren, ahalik eta harreman gutxien izateko egituratua dago, eta egoera larriagotu egiten da euskal preso politikoon kasuan, kolektiboa Euskal Herriaz isolatzea eta aldi berean kolektiboko kideak gure artean ere isolatzea baita helburu nagusia: dispersioa kideak espetxeetan zehar barreiatuz, espetxe barruan ere modulo ezberdinetan banatuz, kasu askotan bisitarra etorri daitezkeen laguneneko kopurua 10era murriztuz, hainbat senideekin aurrez aurrekoak

egiteko eskubidea ukatuz, gutunak murriztuz...

Baina daukagun apurra aprobetxatu eta giza harremanei zuku guztia ateratzen saiatzen gara. Gutunak dira, agian, komunikazio motarik magikoena. Kanean bizitzen diren erritmo biziak klabea eta bokal guztiak janez idaztera bultzatu gaituen honetan, presoak garai batetako komunikazio mota berezi hura darabilgu, maite dugun jendearekin harremanetan jarraitzeko: gutunak.

Ez da erraza, oztopoak mila baitira. Lehenik gutun mugaketa daukagu. Kasu askotan soilik bi gutun igorri ditzakegu astean. Horrek nabarmenki mu-

rrizten dizkizu harremanak, eta denborarekin, gogoz kontra, zeini idatzi eta zeini ez idatzi erabakitzea egokitzen zaigu.

Beste alde batetik, interbenzioa dago. Segurtasunaren aitzakipean, euskal preso politikoak komunikazioak interbenituak ditugu, hau da, bisitetako elkarrizketak entzuten dizkigute, eta gutunak irakurri. Honek bi ondorio ditu. Alde batetik intimitaterik eza eta beste alde batetik gutunen kasuan, atzerapen ikaragarria. Gutunak irakurri eta euskaraz idatziaz egonez gero itzuli egin behar ditzuzte, gutxienez 15 eguneko atzerapenez iristen zaizkigu.

Baina trabak traba, gutunak ziurrenik komunikazio biderik magikoena dira. Lagun bati gutunez nola aurkitzen zaren azaltzea, azken notiziak ematea, edota lagun minaren zorientasunen eta tristuren berri gutunez izatea, miragarria da.

Nik neronek gauean irakurri edo idazten ditut gutunak, gauaren konplizitatean lagunarengana iritsi ahal izateko, orri simple bat izan arren, sentimenez beterikoak direlako orriak.

Hortxe gure eguneroko beste borroka, isolamendua gainditzea, daukagun bide apurrei probetxu guztia ateraz.

EIDER IJURKO ▶ IBARRA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

LEABURU ▶

Autobusa Nafarroa Oinez-erako

Hilaren 16an Ziordian, Olas-tin, Altsasun eta Urdiainen egingo den Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu du Leaburu-Txaramako Udalak. Bertara joan nahi dutenek 6 euro ordaindu beharko dituzte udaletxean hilaren 13a baino lehen.

GAZTELU-OREXA ▶

Uliko festa ospatuko dute hilaren 12an

Datorren asteazkenean, hilaren 12an, Uliko festa ospatuko dute, 1985etik aurrerako ohiturari jarraituz. Gazteluko eta Oresako herritarren artean izaten da festa, eta gazteluarrek haragia eta orea-errek babarrunak prestatzen dituzte bazkarirako. Festa berezi honetan izena eman nahi duenak Oresako edo Gazteluko udaletxetara jo beharko du.

IBARRA ▶ KULTURA

Urteurreneko jaialdian, Alurr taldeko berezienak gogoan

Gaur musika tresnen erakusketa, eta bihar erronomia eta jaialdia izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Alurr dantza taldeak 10. urteurrena ospatzen duela eta antolatutako Kultur Asteak aurrera darrai. Gaur, erakusketan interesgarri bat izango da Kultur Etxean, 20:00etan. Hain zuzen ere, Jon Garmendia mu-

sikari ibartarrak euskal musika tresnen erakusketa azalduko du, eta instrumentu horien musikaz gozatzeko aukera ere izango da.

Kultur Astearen egun handiena biharkoa izango da. Goizean, 11:00etan, plazatik abiatuko dira kalejiran Altzoko eta

dantza eskolako gaztetxoak, eta Euskal Herria kanean, Emeterio Arresen eta plazan dantza saioak eskainiko dituzte. Nahi duenak izango du parte hartze aukera. Eta gauean, 20:00etan, Belabieta kiroldegian jaialdi berezia izango da; dantza saio ugari izango dira

ikusgai, eta Alurr dantza taldeak bere historian izan dituen pertsonaia esanguratsuenak izango dituzte gogoan, bereziki sortzaile eta bultzatzaileetako izan zen Jose Luis Zubeldia. Ekitaldi berezi eta hunkigarri honekin agurtuko dute Kultur Astea.

JON GARMENDIA ▶ MUSIKARIA

«Gure musika tresnak ezagutarazi nahi ditugu»

Jon Garmendia musikari ibartarrak hainbat musika tresna jotzen ditu, alboka, dultzaina, txirula... Txalapartan bikotekide duen Iñaki Plazarekin euskal musika tresnen inguruko proiektua jarri du abian.

Zer eskainiko duzue gaurko erakusketan?

Hitzaldi moduko bat izango da. Musika tresna bakoitzak dituen ezaugarrien berri emateaz gain, jo egingo dugu. Amaieran, abesti batzuk eskaintzeko asmoa dugu.

Proiektuaren helburua?

Gure musika tresnak ezagutarazi eta musikaren zaletasuna piztu nahi dugu.

Zer moduzko harrera izan dute orain arte egindakoak?

Ikastetxeetan aritu gara. Espe-



I. TERRADILLOS

rientzia polita izan da guretzat, eta baita ikasleentzat ere. **Honetaz gain kontzertuekin ere jarraitzen duzu.** Bai, Kepa Junkerarekin eta Ibon Koteronekin ari naiz, eta musika eskolak ematen ere jarraitzen dut. ◀

GIPUZKOAKO ARTISAUEN AZOKA
ORDIZIA 2005
VIII.
ARTISAUALDIA

URRIAK - OCTUBRE 7 - 9 POLIDEPORTIVO MAJORI KIROLDEGIA

ORDUTEGIA HORARIO
10:30 - 14:00
17:00 - 20:30

www.artisaualdia.com

CASA LABORAL LURRALDEA

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

DABID ANAUT ▶ NGB-KO KIDEA ETA 'EUSKARAREN BERRESKURAPEN OSOA' ARLOKO ARDURADUNA

«Nazio eraikuntzarako lehentasunezko egitasmoen bilduma da Nazio Plana»

Bihar egingen dute Zarautzen Nazio Eztatidagunea: Nazio Garapenerako Biltzarrak (NGB) aurkeztuko duen Nazio Plana izanen dute erabakigai

JAIONE ASTIBIA

Dabid Anaut leitzarra bihar Zarautzen egingen duten Nazio Eztatidagunea antolatu duen Nazio Garapenerako Biltzarreko (NGB) kidea da, *Euskararen berreskurapen osoa* arloko arduraduna. Ia 400 lagun elkartuko dira biharkoan, denak, askotariko arlotan, sentsibilitate ia guztietatik, lanean aritzen direnak, eta Nazio Eztatidaguneko kide direnak. NGBk proposatutako Nazio Plana izanen dute mahai gainean: hurrengo urte hauetan «Euskal Herriaren eraikuntzan, herri osorako, bulkatu edota abian jarriko diren proiektuen bilduma». Ekimen honen nondik-norako ez aritu gara harekin.

NGB izako uztailen eratu zen. Zer helbururekin?

Iaz, Nazio Eztatidaguneko Euskal Herriari gabezi batzuk zeudela ikusi zuen eta horiek gaintzeko, besteak beste, Nazio Plana behar zela erabaki. Behar horiei erantzuna emateko eratu zen NGB, urte osoan lan egiteko egitura iraunkorra. Orain egindakoa aurkeztuko zaio Nazio Eztatidaguneari, proposamena onar dezan.

Zertan aritu da NGB urte honetan, beraz?

Lau arlotan berezita egin da lana: nazio erakundetzea bermatzeko batzordean, nazio programazioa bideratzeko batzordean, nazio eraikuntzaren gogoeta sarean eta salbuespenerako batzordean. Baina batez ere bigarren horretan aritu gara: gure eginkizuna Nazio Plana egitea izan da.

Zeinek hartu du parte? Nola? Euskal Herriko eragile asko eta askok parte hartu dute, arlo eta



JAIONE ASTIBIA

sektore oso desberdinetakoak denak. Euren ekarpenekin eratu da Nazio Plana. Hori oso garrantzitsua da: guztiei, beren sektoreaz gaindi, Euskal He-

rriak herri modura, osotasunean, zer beharko lukeen hausnartzeko eskatu zaie. Behar horiek arloka landu dira gero; eta, azkenik, egitasmo guztien arte-

an lehentasunezkoak hautatu dira. Lan hau guztia eragileekin egin da, eta horrela osatu da Nazio Plana. Nazio Plana nazio eraikuntzarako lehentasunezko egitasmoen bilduma dela esan daiteke. Orotara, hogeitatu proiektu dira proposatuko direnak, hauek ere lehentasun mailaren arabera multzoka sailkatuak.

Euskararen arloan lanean ari zaren partetik, esate baterako?

Euskararen arloan, adibidez, ez dugu diagnostiko propiorik egin, lehendik euskalgintzako eragileek egindako lana delako, eta eurek parte hartu duten heinean, NGBk ekarpen hori jaso egin du, eta lehentasunezko egitasmoak zehaztu dira eragile horiekin.

Zeintzuk?

Euskarari propio dagozkionak lau izanen lirateke: euskarazko telebista nazionala sortzea, lan mundua euskalduntzeko fundazioa sortzea, etorkinak euskalduntzeko ekimenak abian jartzea eta *Eskolak euskaldundu behar du* egitasmoa. Baina

kontutan hartu behar da euskararena zehar-lerroa ere badela, eta ondorioz, gainerako arlo guztietan kontuan hartzea.

Eta arlo guztietan horrela.

Bai. 14 arlo landu ditu NGBk. Batzuetan, egituraketa badutelarik, eta eztabaidatzeko eta lantzeko ohitura badagoelarik, indartsuago daude, eta lanketa errazagoa izan da. Besteetan, murriztago gabilta. Gainera, kontuan hartu behar da, erabat, herri ikuspegitik egin dela lan, arkiteta berezia egin dela horretan. Hori egin izan den lehen aldia da.

Horrela, Nazio Plana eratu da. Eta aurrerantzean zer urrats?

Aurten plana osatzen arituko gara, eta bihar Nazio Eztatidaguneko plana onartzen bada, hori egi bihurtzeko pausoak ematea da lana. Eta aurrerantzean hau Euskal Herriko eragileekin egin duten moduan, gerora ere, eurek egingen dute aurrera. NGBk egitasmo horietan sektore desberdinetako eragileekin inplikazioa sustatzeko lana egingen du, batzutan gehiago, bestetan gutxiago, behararen arabera. Ez dator deus ordezkatzerara.

Metaketa lana egingen du?

Bai. Proiektu batean, hau, hura eta bestea, elkarrekin lanean aritzea; eta egitasmo guztietan eta bakoitzean sektorez gaindiko ikuspegitik aritzea, nazio ikuspegitik. Hori oso garrantzitsua da, herri osorako egiten delako eta herri modura jokatu aurrera joateko. Lehenengo aldia da horrelako zerbait egingen dela: urrats zailak izan direla, bai; baina Herria egingen ari gara.

Goizean bilkura, arratsaldean ekimen irekia egingen da.

Bai, goizeko bilkuran azalduko diren proiektuak plazaratzeko hainbat modutako ekimenak antolatu dira: gogoeta-guneak, tailerrak, erakusketak... Eta halako ekimen bereziari festa kutsua ere eman nahi izan zaionez, karpa bat jarriko da, bertan arratsalde guztian zehar kultur eskaintza zabala egingen delarik. Hori ere Nazio Eraikuntza da.

EH05 NAZIO EZTABAIDA ▶ EGITARAU

Bihar egingen dute Zarautzen aurtengo Nazio Eztatida, Nazio Garapenerako Biltzarrak aurkeztutako Nazio Planari buruz. Bilkura Zarautzko Salvatore Mitxelena ikastolan egingo dute, goizean; arratsalde, berriz, ekimen irekia egingen dute, nahi duen guztiak parte har dezan.

NAZIO EZTABAIDAGUNEA

9:30-13:00. Osoko bilkura. Egoeraren azterketa eta Nazio

Plana izango dituzte hizpide.

EKIMEN IREKIA

13:30. Hasiera ekitaldia, Bertsolari plazan.
14:00. Bazkaria, karpan.
16:00-17:00. Hainbat proiekturen aurkezpenak: Gaindegia, Laborantza Ganbara, Gazte Kontseilua, Emakumeen eskubideen karta, Euskal Unibertsitatea, Naziotasun aitomena.
17:00-18:30. Tailer ttikiak:

Irratigintza, Pobreziaren muga, Euskal Curriculum, Etorkinen euskalduntzea, Etebizitza.

18:30-20:00. Tailer nagusia: *Aurrekontu partehartzailak.*

16:00-20:00. Eragile desberdinen lan erakusketa.

16:00-20:00. Dokumentalak.

16:00-20:00. Karpan: Patxi

Perez, Mikel Markez eta Pako

Aristi, dultzaineroak, taberna,

bertsolariak, paella erraldoia,

Txan magoa, Korri, Xaltoa eta

Brinko, Karidadeko Benta.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Tolosaldeko Emakumeon Mundu Marbxarako Plataformak antolatuta, kontzentrazioa. 20:00etan, Trianguloan.

ERAKUSKETAK

Ibarra. 1974 eta 2005 arteko argazkien erakusketa. Aste osoan ikusgai, Kultur Etxean. Alurr dantza taldearen Kultur Astearen baitan.
Tolosa. *Ipuinartean I* egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte, Aranburun.

KIROLAK

GAUR

Pilota.

- ▶ Bergara 1-Aurrera Saiaz (Aratz Irazusta eta Iñaki Errazkin; gazteen 2. Maila). 19:30, Bergara.
- ▶ Bergara-Aurrera Saiaz (Garikoitz Galarraga; nagusien 1. Maila). 19:30, Bergara.
- ▶ Aurrera Saiaz 1-Altzatarra (Unai Aspe eta Ruben Zapirain; nagusien 2. Maila). 20:30, Beotibar.
- ▶ Aurrera Saiaz 2-Olalde (Mikel Olaetxea eta Iker Huarte; nagusien 2. Maila). 20:30, Beotibar.
- ▶ Aurrera Sai 1-Zumaia 2 (Axier Telleria eta Ion Orbegozo; nagusien 3. Maila). 20:30, Beotibar.
- ▶ Aurrera Saiaz 2-Zarautz



Abesbatza Lehiaketarako abonuak salgai

TOLOSA ▶ 37. Abesbatza Lehiaketako abonuak salgai jarri dituzte dagoeneko Tolosako Ekinbide Etxearen (TEE-CIT) egoitzan (Emetario Arrese plaza, 2). Hilaren 14a arte erosi ahal izango dira bertan, 40 eurotan; haurtzat, berriz, 10 eurotan jarri dituzte salgai. Sarre- rek, berriz, 7 eurotan eros daitezke, eta 3 eurotan haurtzat. Amaiera ekitaldirako sarrera 15 eurotan dago salgai, eta haur abesbatzen saioarena 6 eurotan. IRATZE ETXEBESTE

(Igor Aranzabe eta Joseba Senperena; nagusien 3. Maila). 20:30, Beotibar.

▶ Zumaia-Beotibar 2 (Izagirre eta Bildarratz; kadeteak). 20:00, Odieta-Zumaia.

▶ Laskorain-Zierbena (Nazional Maila B). 16:00, Usabal.
▶ Transportes Lakuntza-La Bellota (1. Maila A). 18:30, Olaederra.
▶ Tinta Billabona-Goierrri (Emakumezkoen Senior Maila). 15:30, Olaederra.

Zesta-punta.

- ▶ Beotibar 1-Donostia Jai Alai 3 (Trabanzos eta Rezola; nagusiak). 19:30, Santa Luzia.
- ▶ Beotibar 2-Zumaia 2 (Artebe eta Garmendia; nagusiak). 19:30, Santa Luzia.

BIHAR

Areto futbol.
▶ Kettal-Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko Maila). 18:00, Fuenlabrada.

Futbola.

- ▶ Amorebieta-Tolosa (3. Maila). 17:00, Urritx.
- ▶ Danena-Mariño (Lurraldeko 1. Maila). 16:30, Elbarrena.
- ▶ La Salle-Tolosa B (Lurraldeko 2. Maila). 17:15, Donostia.
- ▶ Tolosa-Santo Tomas lizeoa (Jubenilen 1. Maila). 16:00, Usabal.
- ▶ Intxurre-Zestoa (Jubenilen 1. Maila). 16:30, Elorri.
- ▶ Tolosa-Cultural Durango (Jubenilen Nazional Maila). 16:30, Berazubi.

Futbol 7.

- ▶ Ibarra Gatzte Asanblada-La Kabutzia (1. Maila A). 17:00, Beasain 1.
- ▶ Continental Industrias-Emengo Artekaritza. (1. Maila A). 18:30, Lezo 1.
- ▶ Academia Jarraitu-Caravanas Tolosa (3. Maila D). 19:00, Beasain 1.

Pilota.

- ▶ Intxaurrondo-Aurrera Saiaz

(Xabier Tellebea eta Ariz Mujika; gazteen 1. Maila). Intxaurrondo, 15:30.

Zesta-punta.

- ▶ Donostia Jai Alai 1-Beotibar 1 (Mujika eta Telleria; kadeteak). 11:00, Carmelo Balda.
- ▶ Donostia Jai Alai 1-Beotibar 3 (Orrantia eta Mujika; nagusiak). 11:00, Carmelo Balda.

ETZI

Areto futbol.

- ▶ Ibarra-Deportivo Cerverano (Nazional Maila A). 12:00, Belabieta.

Futbola.

- ▶ Aurrera-San Cristobal (Lurraldeko 1. Maila). 17:30, Arkixkil.
- ▶ Beasain-Billabona (Jubenilen 1. Maila). 11:30, Igartza.

Pilota.

- ▶ Aurrera Saiaz-Txapagain (Mattin de la Sotilla eta Ander Dorronsoro; kadeteen 2. Maila). 11:00, Bidania.
- ▶ Aurrera Saiaz-Antiguako 2 (Mikel Lasa eta Luis Angel Zubiri; kadeteen 1. Maila). 11:00, Bidania.
- ▶ Aurrera Saiaz-Anaitasauna (Koldo Galarraga; gazteen 1. Maila). 11:00, Bidania.

MAHAI-INGURUA

Tolosa. *Bizikidetzako giltzarriak* mahai-ingurua. 19:30ean, Kultur Etxean. *Ipuinartean I* ekimenaren baitan.

MUSIKA

Tolosa. Kerobia eta Sei urte. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5 eta 101.2 FM) 11:00-14:00.

Tolosaldeko ahotsa: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin; HITZaren errepasoa, oharak, agenda, elkarrizketak, albisteak... 13:00etan, *Ezkituko koloreak* irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainien tartea. 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* saioaren errepikapena. 22:00-23:00. *Arkako Show* musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Teresa Goena eta Ricardo Navas (Tolosa). 50 urte ezkondu zinetela. A ze paraa aza eta bare! Zorionak zuen apopiloen partetik.

HITZA,
zorion agurren
tarteak

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!